



DIRU SARRERAK

Gure proiektuak merkaturatu nahi duen produktua ura edateko ohitura hobetzea helburu duen ur botila adimendun bat da. Botila honek kolore-sistema baten bidez (gorria, horia eta berdea) erabiltzaileari noiz edan behar duen adierazten dio. Osakidetzaaren arabera, pertsona heldu batek egunean batez beste 2 litro ur edan behar ditu, eta erreferentzia hori erabiliko da botilaren funtzionamendua programatzeko. Produktu hau pertsona guztientzat pentsatuta dago, baina batez ere ikasleentzat, kirola egiten dutenentzat eta egunerokoan ura edatea ahazten dutenentzat.

Botila arruntak 15€ balio dute gutxi behera bera, eta gure botila besteak baino bereziagoa denez garestiagoa izango litzateke. Gure ustez, bezeroak produktu honen truke 25 eta 35 euro artean ordaintzeko prest egongo lirateke. Izan ere, ez da teknologia oso konplexua duen produktu bat, baina bai erabilgarria eta egunerokoan lagungarria. Prezio horrek aukera ematen du botila arrunt bat baino garestiagoa izateko, baina aldi berean ez izateko gehiegi garestia, jende gehiagok erosi ahal izateko.

Proiektuaren diru-sarrera nagusia botilen salmentatik etorriko litzateke. Gure kalkuluen arabera, diru-sarreraren %80-85 inguru salmenta zuzenetik lortuko litzateke. Hau da, denda fisikoetan, online dendetan edo ikastetxe eta kirol-zentroetan egindako salmentak izango lirateke sarrera nagusia.

Gainera, beste diru-sarrera osagarri batzuk ere izan daitezke, nahiz eta hasieran portzentaia txikiagoa izan:

- Ordezko tapoiak (9€) edo piezak saltzea (%5-10): denborarekin, tapoia hondatu edo galdu daiteke, eta bezeroek ordezko bat erosteko beharra izan dezakete.
- Ikastetxe edo enpresentzako salmenta handiak (%5-10): kantitate handitan egindako eskaerak, prezio apur bat txikiagoarekin baina salmenta kopuru handiagoarekin.

Iturria: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/portada/>